

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. LANGABETUEN ERDIEK EZ DUTE INOLAKO LANGABEZIA PRESTAZIORIK JASOTZEN
2. 6/2013 ERREGE LEGE DEKRETUA, MALGUTASUNA JABE
3. EUSKALTEL KAPITAL PRIBATU ESPEKULATIBOAREN ESKU GERATU DA
4. BANKUEK EZ DIETE MAILEGURIK EMATEN FAMILIEI
5. POBREZIA, NEOLIBERALISMOAREN ONDORIOA
6. PROPOSAMENA: DISKURTSOARI AURRE EGIN GAZTEA? EMIGRATU, ERREZETA MAGIKOA

1. LANGABETUEN ERDIEK EZ DUTE INOLAKO LANGABEZIA PRESTAZIORIK JASOTZEN

Enplegu Zerbitzu Publikoak argitaraturiko datuek Hego Euskal Herrian (HEH) 2013ko abenduan langabezian izandako pertsona kopurua 218.862koa izan dela adierazten dute, aurreko ilean baino 7.116 gutxiago eta duela urte bat baino 2.165 gutxiago.

Langabezian izena emandako pertsona kopurua 2013an jaitsi izanak ez du enplegua hazi dela suposatzen. Izan ere, Hego Euskal Herrian Gizarte Segurantzaren kotizatzen zutenen kopurua 1.272 pertsonatan jaitsi da azken 12 hilabeteetan. Langabezian izena emandakoen kopuruaren jaitsiera ez enplegua sortu delako izan, baizik eta biztanleria aktiboa arrazoi ezberdinengatik jaitsi izanagatik baizik.

Langabezia tasa %17,1ekoa da, EB-28koa baino 6,2 puntu altuagoa (10,9koa da), eta soilik Kroaziak, Espainiar Estatuak eta Greziak daukate tasa altuagoa. Datuak argigarriak dira: zenbat eta murrizketa eta erreforma gehiago egin, orduan eta langabezia tasa altuagoa.

Oso larria da ere langabezian dauden pertsonen egoera babes sozial faltagatik. Izan ere Hego Euskal Herrian langabezian izena emanda dauden pertsonen %48,8ak ez du inolako langabezia prestaziorik jasotzen. Soilik hirutik batek (%30,6k) jasotzen du kotizaziopeko prestazioa, eta %20,6ak gizarteratze errenta edo subsidioa jasotzen du.

Bilakaerak egoera gero eta larriagoa dela erakusten du gainera. Izan ere langabezian

eta inolako prestaziorik jaso gabe daudenen kopurua 10.801 pertsonatan hazi da azken urtean (%44,6tik %48,8ra), eta kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenak %3,9 jaitsi. Azken 5 urtetan langabezia saririk jasotzen ez dutenak 33.536tik 110.318ra pasa dira, hau da, 76.782 gehiago (%31,5etik %48,8ra pasaz).

Prekarietate maila erakusten duen beste datu bat 2013an zehar sinaturiko lan kontratu guztien %93,9a behin behinekoa izan dela da. Bilakaerak portzentaje hau gero eta altuagoa dela erakusten du. Azken urtean 0,3 puntu igo bada ere, azken 5 urteetan 2,8 puntu egin du gora.

Penagarria da zenbait arduradun politikok giza emergentzia egoera hau begi onez begiratzea langabezia zerbait jaitsi delako. Egoera honetan ezin da esan lana erreuperatzen ari denik, ez eta askoz gutxiagorik ere. Gainera pobrezia eta prekarietatea mugaraino daramaten murrizketa eta erreforma politikak egiten dihardute oraindik ere.

Gizartearen eta enpleguaren egoera okerrera doa oraindik ere HEHan, eta bakarrik antolakuntza eta borrokaren bidez lortuko dugu egoera honetara bideratu gaituzten politikak aldatzea.

2.- 6/2013 ERREGE LEGE DEKRETUA, MALGUTASUNA JABE

Abenduaren 21ean E.A.Oak, 16/2013 Errege Dekretu Legea argitaratu zuen, abenduaren 20koa, kontratazio egonkorra bultzatu eta langileen enplegua hobetzeko neurriekin.

Oraingoan, kontratazio egonkorra hobetzeko aitzikipean, kontratu partzialen arautzea aldatu da, enpresen barne malgutasuna laguntzeko helburu bakarrarekin.

Zehazki,

- Kontratu partzialak dituzten langileek aparteko orduak egiteko aukera desagertzen da, Langileen Estatutuko 35.3 artikuluko kasuetan izan ezik. Halaber, ordu osagarriak bultzatzen dira.
- Ordu osagarriak egiteko, aurretik jakinarazteko epea zazpi egunetik hiru egunetarako jeisten da.
- Ordu osagarrien kopurua handitu egiten da, ohiko lanaldiaren %15etik %30era. Hitzarmenez, %60rarte.
- Ordu osagarri adostuak eta borondatezkoak bereiztuko dira, beti ere adostuak derrigorrez egin behar izango direlarik eta borondatezkoak, borondate izaera izango dute baina kontratu finkoetan baino ezin izango dira egin.
- Ordu osagarriak egin ahal izango dira baldin eta adostutako ohiko lanaldia astero 10 ordukoa bada, urteko zenbaketan.
- Kontratu partziala duten langileen lanaldia erregistratzeko betebeharra egongo da.

Dekretu honek, lanaldi irregularren banaketari dagokionez ere berriak dakartza. Orduen zenbaketan dauden diferentziak, gehiegizko edo gutxienezko kasuetan, hau da lanaldi irregularren kasuan. Alderdien artean adostutakoa izango da. Bestela, egon

daitezkeen ezberdintasunak sortu eta hurrengo 12 hilabetetan konpentsatu beharko dira, epea luzatuz beraz, urte arruntetik.

Neurri hauek guztiak, barne malgutasuna errazten duten lege baliabideak, helburu zehatza dute, langileriaren eskubideen kontura enpresen barne antolakuntza lagundu.

3.- EUSKALTEL KAPITAL PRIBATU ESPEKULATIBOAREN ESKU GERATU DA

Azkenaldian, Euskaltel arlo publikoaren kontrolpean egotetik (hasieran bere kapitalaren %60 EAeko hiru Aurrezki-Kutxen esku zegoen, eta gainerako %40a, Jaurlaritzarenean, Euskalnet sozietatearen bitartez), kapital pribatuaren esku geratzera pasatu da (Kutxabankeak %49,9 kontrolatzen du, Iberdrolak, %2, eta Internacional Cable BV-k, % 48,1). Erabaki honen ardura Aurrezki-Kutxena eta Eusko Jaurlaritzarena da.

Ikuspuntu ekonomikotik egoera ezin hobean dagoen enpresa bati buruz ari gara. 2012an Euskaltelek 342,8 milioi euroko salmenta izan zuen, eta 48,1 milioiko etekin garbia (hots, salmenten %14,03). Ekitaldi honetako etekin garbia pertsonal kostu osoa baino %54 handiagoa izan zen (hauek 31,7 milioi euro zirelarik, salmenten %9,25).

2012koa ez zen salbuespena izan. Aurreko ekitaldietan ere Euskaltel oso enpresa errentagarria izan zen. Ondorioz, eragozpen handirik gabe ordaindu ahal izan zuen Orangeri eman beharreko 215 milioiko kalteordaina, epaileak operadore honekiko akordioa urratzeagatik ezarri ziona. 2013ri buruz ditugun datuen arabera ez da

aldaketa handirik izango. Azaroaren 15ean enpresak jakinarazi zuen urteko etekinak zegoeneko 39 milioi euro zirela, eta presidentek orain gutxi iragarri duenez ekitaldi amaierako 50 milioiko etekina lortzea espero dutela.

Hala ere, egoera hori izanda, langile kolektiboaren lan-baldintzetan eta enpleguan ondorio oso larriak izango ditu, Euskalteleko plantilleko zein azpikontratatu direla ere. Enpresak argi adierazi du kontratupeko eta azpikontratetako pertsonal gastua 9 milioi eurotan murriztu nahi duela; zuzendaritzaren arabera, soldata-gastuen %15, alegia. Zelan? Sistemen arloa esternalizatzea erabaki dute; honek Euskalteleko egungo plantillako 40 pertsona kaleratzea esan nahi du, eta beste lan-arlo batzuk ere esternalizatzeko asmoa dute, 550 lagunek osatutako plantillako beste 200rengan izango lukeelarik eragin. Bestalde, azpikontratak egiten ari diren lan batzuk internalizatzeko asmoa dago egoera horretan 575 bat pertsona daudelarik.

Guzti honek, abenduan 3 egunetako greba egitea motibatu zuen, eta hurrengo asteetarako mobilizazioak iragarri dira.

ELAk egungo Kutxabank eratzera eraman zuen bankarizazio prozesuak izango zituen ondoriok hasieratik iragarri zituen. Sindikatuak salatu zuen horrela beste urrats bat egingo zela EAeko aurrezki-kutzak ohiko banku pribatu bihurtzeko, eta atzerapausoa, berriz, finantza-erakundeak gure herriko are produktiboarekiko eta proiektu estrategikoekiko. Kutxabankek Euskaltelen erabaki duen desinbertsioa salatutakoaren adibide garbia dugu.

Egoeraren arduradunak badaude, Eusko Jaurlaritzak nahiago izan du dirua eskuratzeko Euskalteleko partaidetza saldu, Kutxabankek Euskaltel kapital pribatuaren esku uztea erabaki du, biek enpresa inbertsio-fondoan esku uztea lehenetsi dute; hauek xede bakarra dute, etekinik handiena eperik laburrenean lortzea, zergak ordaintzea saihesteko sortu den sozietate bati atek irekiz. Horrela, Euskaltelen etorkizuna arriskuan jarri baino ez dute egin.

4.- BANKUEK EZ DIETE MAILEGURIK EMATEN FAMILIEI

Krisia sortu ez dugunok sufritzen eta ordaintzen dugula esatea ez da ezer berria. Era berean, ez da inongo berritasuna Espainiar Estatuak bankuek egindako zuloak ordaintzera bideratutako diru publiko guztiak ez duela familiei maileguak ematerako orduan inongo eraginik izan. Hau da kreditu maila 2007koaren azpitik kokatzen duten Espainiako Bankuak argitaratutako datuetan ikus litekeen ondorioa.

Datuak 2013ko azarokoak dira, argitaratu diren azkenak, eta bertan ikus liteke nola familiei emandako maileguak %4,6 gutxitu diren azken urtean, 798.039 milioi eurotaraino. Ideia bat egiteko, 2010ean emandako maileguak zifra hau baino 100.000 milioi euro handiagoa izan zen.

Familiei emandako kredituen %77,2a hipoteka maileguak izan dira, 616.028 milioi hain zuzen, azken urtean %4 jaitسي eta gero. Bestalde, %22,4a beste mailegu batzuk izan dira, pertsonalak besteen artean, eta hauek %6,7 jaitسي dira.

Gainera maileguak ematen ez dituztenak Estatuko Finantza Erakundeak dira, Estatutik kanpoko bankuek emandako maileguak %7,6 hazi baitira 2013ko azaroan, azken urteko hazkunde bilakaerari eutsiz. Dena den, mailegu hauek guztien %0,4 besterik ez dira (3.018 milioi euro), eta ez dute dagoen arazoa konpontzen.

Beraz, bere dirua espekulatzen galdu zuen banka "erreskatatzearen" emaitza hau izan da: bankuek espekulatzen jarraitzen dute, eta jendea murrizketa eta doitze politikak jasateaz gain, mailegu faltagatik itota dago.

5.- POBREZIA, NEOLIBERALISMOAREN ONDORIOA

Pobrezia da politika neoliberalak dakarkiguna. Ez da urrun dagoen zerbait edo gutxi batzuen kontua. Pobreziaren hazkundera Europa guztian zehar zabalduta dago, eta politikak aldatzen ez badira, gehiago haziko da.

Alemanian, bertako Estatistika Bulego Federalak dionez, herritarren %16,1 pobrezia arriskuan dago, hau da, Alemaniako 13 milioi pertsona pobrezia arriskuan bizi dira. 2011ko datuak dira, eskura dauden azkenak, eta goranzko joera ikusita (0,3 puntu igo da 2010etik), ez litzateke arritzekoa zifra hau hazi izana.

Portugalen 121.000 pertsonak baino gehiagok utzi dute Estatua 2012an (guztira 10,5 milioi hiritar ditu herrialde honek), eta hortaz hiritarren %1,1a suposatzen du. Gainera alde egin duten pertsona kopurua urte horretan bertan jaio zirena baino handiagoa izan da, 90.000 izan baitziren jaitoakoak.

Hau gero eta jasangaitzagoa den pobreziaren eta gobernuek inposatzen duten bizi kalitate prekarioaren beste ondorio bat da hau zalantzarik gabe. Jende asko eta askok bizitza hobe bat lortzeko asmoz beraien herria eta jendea atzean utzi eta alde egitera behartuta ikusten diren puntura iristeraino.

Italian familien %7a erabateko pobrezian bizi da, eta %13a pobrezia erlatiboan, bertako Estatistika Institutoaren 2012ko datuen arabera. Ikerketa honek pobreziaren hazkunderaren intentsitatea eta azkartasuna nabarmentzen ditu gainera. Izan ere pobrezian dauden familiak bikoiztu egin dira 2005etik, eta pobrezia erlatiboan daudenen kopurua 1997tik hona izandako altuena da.

Beste alde batetik ere 2010etik 2012ra oinarritzko gauzei uko egin behar izan dienen tasa bikoiztu dela adierazten dute, hala nola berogailuei, astean behin proteina duen bazkari bati, edo ez ohiko gastu bati aurre egiteko ahalmenari.

Hau Europa osoan bizi den egoera da; Britainia Handian ongintza zentroetara joatea behartuta ikusi direnen kopurua 20 bider handitu da, Espainiar Estatuan Caritas-en harrera zentroetan 370.000 pertsona artatzetik 1.300.000 pertsona artatzera pasa dira, eta Grezian malaria eta pestea bezalako gaitzak bueltatu dira.

Pobrezia ez da bazkalondoan abstrakzioaz eta hirugarren pertsonan hitz egiten den gaia. Pobretze kolektiboak eta desberdintasun sozialak bete-betean eragiten gaitu. Europako %20 aberatsenak %20 pobreenak baino 5 halako irabazten du (Espainiar Estatuan eta Grezian 1etik 7rako erlazioa da).

Hau da gobernuek beraien politika neoliberal eta kapitalistekin eskaintzen digutena, desberdintasun soziala eta gero eta handiagoa den pobrezia. Eta bere horretan jarraituko dute; nortzuk galdu dute enplegua eta nortzuk jarraituko dute enplegua galtzen? Nori jaitsi zaie soldata eta nori jaisten jarraituko dute? Nortzuk galdu dituzte prestazioak? Nortzuk ikusten dute erretiroa kolokan?.

Baina beste politika bat egin daiteke, eta bakarrik politika neoliberalarekin eta hauek egiten dituztenekin austen dugunean lortuko dugu zirkulu arriskutsu hau moztea.

6.- PROPOSAMENA: DISKURTSOARI AURRE EGIN GAZTEA? EMIGRATU, ERREZETA MAGIKOA

Mezuak denborak aurre egin ahala aldatzen dira, egoerak behartuta edo mezu hoiek zuzentzen dituztenen interesen arabera. Gazteek lan merkatura sartzeko dituzten aukera urriei, esdeuz ez esatarren (25 urtetik beherakoan langabezi tasa % 44,9koa da) mezua ere aldatu da. Gaur hitz magikoak gazte ekintzailea edo emigratu, zoaz kanpora "hobeagoa" zen zerbaiten bila.

Dei efektua, atzerritik datozen lan eskaintza miragarriak, proba egin jakin gabe non eta nola, hain zoragarria ote da dena? Gaur ineteresa dago horrelako mezuak zabaltzean.

Erabaki pertsonalak alde batera utzita, errealitatea argia da, agintea dutenek bide erraza hartu dute, gazteriaren lan eskubide eta duintasunaren aldeko apostua alde batera utziz. Kanpoan, atzerrian bestelako aukerak bilatzeko mezua botaz, mundua ezagutu eta aberastasun pertsonalaren eta

profesionalaren alde polita salduz, emigratzera animatu baina egia osoa kontatu gabe.

Egia da, emigratzen duten gehienek "bizi hobeago" baten bila egiten dutela, hemen emantzipatzeko aukera ezari, abaguneak behartuta eta alternatiba hutsen aurrean egoerari aurre eginez. Beti ere, merezi izango duenaren pentsakerarekin, itzuleran adimen eta bizipen aberatsagoak izanik. Gutxitan emigratzea lan aukera saihetsezin batekin bat doa. Kasurik gehienetan asko eta ondo pentsatutako "ihes"-ak izaten dira, noiz eta nola joan, ze aurrekontuarekin, zenbaterako etab. Inolako laguntza instituzionalik gabe.

Agintari jaunak, guztia kontatu beharra dago. Beste herrira heltzean gertatzen dena, hizkuntza arazoak, titulazioen homologazioekin, egunerokotasunean dauden arazoekin, etxebizitza bat alokatzean edo kontu korrante bat zabaltzean, langabezi eskubidearekin, legezko emigrazio prozesuarekin, hango lan merkaturako prekaritatearekin, praktikazko eta beka kontratuekin... zer gertatzen da emigrantearen bertako eskubide zibil eta politikoekin, hoietako asko errolda arazorik direla eta galduak, etxebide, gizarte prestazioak, langabezia... eta itzuleran, kanpoan lan egindako denborak zenabtzan du pentsio kasuetan, prestazioetan etab.? Beneta emigrazio prozesua baloratzen da? Kanpoan egonda, laguntzarik jasotzen da? Guzti honi buruzko informazioarik ematen da? Edo ezjakintasuna osoa da? Eta itzuleran?

Konta dezagun zentzu honetan ez dagoela ezer ez. Euskal gobernuak eta Nafarrak ez dute inolako neurririk ez politikarik martxan

gazteriaren prekarietateari aurre egiteko, neurririk ez prozesu hauetan parte izateko, ez aurretik, ez bitartean ez eta ondoren ere.

Gazteria, etorkizuna suposatzeaz gain, herri baten ezaugarrien/nostasunaren, gaitasunaren eta aberastasunaren isla da. Euskal Herriko gazteek batik bat enplegu politika hutsen, etxebizitza eta alokailu

politika negargarrien eta lan merkatu ezegonkor, prekarioen fruitu dira.

Argi dago zoragarria zoragarria... Emigratzera soluzio gisa bultzatzen duen mezuari aurre egin behar zaio, HEH bizi diren pertsonak hemen bizitza duina izateko politikak aldatzea beharrezkoa da.